

# IRAGANARI GUTUNA

Denak hain erraza ematen du, baina hain da konplexua. Hain zaila al zen zerbait bi hitz soiletan esatea? gure sentimenduak ezkutatzeko genituen, mundu osoari elkar maite genuela esan beharrean. Inoiz ez nuen horrelako ezer berezirik inorengan sentitu. Zu zinen munduaren erdigunea. Eguneko hogeita lau orduak ematen nituen zurekin pentsatzeko, zurekin igaro nahi nituen nire bizitzako egun eta gau bakoitza. Zure alboan esnatu, nahi nuenean zu besarkatu, zure ezpainak behin eta berriz musukatu, zugandik inoiz ez aldentu. Zu ez ikustea oso zaila egiten zait, zure irribarre eta begiradak indarra ematen baitzidan. Zurekin igarotzen nituen une oro ziren bereziak, eta kemen eta itxaropenez betetzen laguntzen ninduten. Sarritan, zu zinen nire pentsamenduetan zegoen bakarra, eta baita nahikoa ere. Benetan maite zintudan eta beti egingo dut hala, zu hemen ez egon arren. Zurekin pentsatzeak egun ilunenak ere argitzen dizkit. Eztarrian nuen korapilo hau askatu nahi izan dut joan zinenetik. Inork ez zekien gure arteko, eta damu naiz horretaz, agian gure artekoa ezkutatzeko saiatu ez bagina oraindik nire alboan egongo zinelako. Maite zaitut, eta ez zaitut inolaz ere nire bihotzetik ihes egiten utziko.

“Beldur nintzen  
benetan maitatuko nuen norbait  
ez aurkitzeaz.  
Norbait ezin hobea nahi nuen,  
niretzat behintzat.  
Mintzatzeko modu berezi bat zuena,  
entzuteko modu zintzo bat,  
maitatuko ninduenena,  
ulertuko ere,  
nire bihotza  
hau denaz beteko zuena.  
Asko nahi nuela uste dut,  
baina itxaropena nuen.  
Nire bizitza  
norbaitek aldatuko zuelakoan nengoen,  
eta...  
...itxaroteak,  
bakardadeak,  
ia amore eman nituen uneak,  
merezí izan zuten,  
beren fruitua eman zuten.  
Egia da desirak  
errealitate bihurtzen direla,  
beti desiratu nuena,  
ez zelako amets bat,  
ZU ZINEN!!! ”